

FUNTSESKO JARDUERAK

Roompaint produktu berri bat denez, denborarekin diseinu apropos bat egitea lortu dugu, oso erakargarria egitea pentsatu dugu, saltzeko adibidez erraza izateko. Funtsezko jarduera diseinua denez, denborarekin aldaketak izango ditu beti berritzen egoteko eta duen funtzioa hobetzen joateko.

Gure produktua funtziona dezan, hainbat pausu jarraitu behar ditugu. Lehenik eta behin Roompaintaren muntaia prestatzeko hainbat atal daude:

Makil hedagarria:

Roompainta eta kutxaren artean dagoen lotura izango da. Makil honekin Roompainta mugitu egingo da gora eta behera.




Kutxa: Hainbat atal daude kutxaren barruan;

Pantaila taktila: Pantaila honetatik Roompaintaren eginkizun guztiak kontrolatuko dira. Kutxara konektatuta egongo da eta programazio erraza izango du, edonor erraz erabili ahal izateko.



Pintura sartzeko kaxa: Kaxa honen barruan koloretako pintura desberdinak egongo dira, behin kolorea aukeratutakoan hodi batetik makil hedagarrira joango da pintura eta makiletik Roompaintaraino joango da pareta margotzen joateko.



Roomba: horizontalean joango da eta pintura botako du, txuriz ikusten den zonalde horretatik eta pareta margotzen joango da. Roombaren enpresa Roompainta egingo du eta gure enpresara iristen denerako montatu egingo dugu.



Produktu gehienak “Alibaba” enpresaren bitartez erosiko ditugu Roompaintaren atalak muntatzeko. Roompaint-a bukatua dagoenean hainbat enprekin kontaktuan jarriko gara gure produktua dendetara iristeko eta jendea ikusteko. Gainera, marketina erabiliko dugu gure produktua gehiago saltzeko asmoarekin. Adibidez, gure web orrian salmentan dagoela eta non erosi dezaketen jarriko dugu. Erosleek edozein arazo badituzte ere, web orrian gure lokalaren helbidea jarriko dugu sortu daitezkeen zalantzak argitzeko.



Odei Roomba enpresaren laguntzarekin beste enprekin harremanetan jartzeaz arduratuko da, gure produktua aurrera ateratzeko.

Jon Roompaintaren muntzaketaz arduratuko da. Roomba enpresak guk eskatu diogun robota bidaliko digu eta Jon mekanizazioaz arduratuko da.

Uxue, gure web orria kudeatzeaz arduratuko da beti berriztatzen egoteko eta produktuare buruzko informazioa ondo azaltzeko. Bezeroak online egingo dituzten erosketetaz eta eduki ditzazketen zalantzak argitzeaz arduratuko da, gainera lokalera etortzen diren bezeroetatik arduratuko da.

Enara marketing ikasketak egin dituenek, gure produktuaren logoaz, diseinuaz eta iragarki deigarri bat egiteaz arduratuko da. Honetan esperientzia duenez eta zenbait enprekin kontaktuak dituenek, oso ondo sartu ditzake gure produktua merkatuan.

